

<b>ADIERAZLEA:</b>	<b>ENPLEGU KOPURUA</b>
<b>FITXA METODOLOGIKOA</b>	
<b>ARDATZA:</b>	<b>ENPLEGUA ETA HEZKUNTZA</b>
<b>ALORRA:</b>	<b>ENPLEGUA</b>
<b>DEFINIZIOA:</b>	
<p>Udalerriko enpresa-sareko enplegu kopurua.</p>	
<b>NEURRI UNITATEA:</b>	
Enpleguak	
<b>KALKULU METODOLOGIA:</b>	
<p>Erreferentziako urtean, batez beste zenbat pertsonen parte hartu duten aktiboki establezimenduaren jardueretan ordainsari baten truke; ordainsari hori dirutan edo gauzatan jaso daiteke, edo enpresaren mozkinetan parte hartuz</p>	
<b>KALKULU MAIZTASUNA:</b>	
Urtero	
<b>INFORMAZIO ITURRIAK:</b>	
Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat.	
<b>OHARRAK:</b>	
<p>Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) eragiketarako informazioa jasotzen du Euskal AEn jardueren ekonomikoak egiten dituzten establezimenduen eta enpresena; oinarritzko egiturazko informazioa ematen du jardueren ekonomikoaren sektoreen gainean eta erreferentzi-markoa da zentsuak eta inkestak egiteko; erkidegoko establezimenduetan lanean ari den biztanleriaren azterketa ere ahalbidetzen du. Gaur egun ez dira sartzen lehen sektoreko jarduerak, etxerako langileak enplegatzen dituzten familiak eta lurraldez kanpoko erakundeak.</p> <p>Erreferentziako urtearen aurreko urtean jardueretan modu aktiboan parte hartu duten pertsonen batez bestekoa, eskudirutako edo espeziatutako ordainsari baten truke edo enpresa-mozkinen parte baten truke, izango da establezimenduen sortutako <b>“enplegua”</b>.</p> <p>Kontzeptu horretan mota guztietako laneskua sartzen da: jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, famili laguntzak (partaidetza iraunkorra izan edo ez izan), soldatapeko langile finkoak (etengabeak edo etendunak), eta soldatapeko aldi baterako langileak, nahiz eta aldi batez lanean egon ez, edozein arrazoi dela medio, baina lan harremanak irautean badu (gaixotasuna, amatasun baimena, oporrak, greba, lansaioaren erregulazioa, etab).</p> <p>Lanaldi partzialean egiten diren jardueretan, denboraldikoetan, urtebete baino denbora laburragoan egiten direnetan (urte horretan irekitzeagatik edo ixteagatik), soldatapeko aldi baterako langileek egindakoetan edo langile finko etendunek egindakoetan, lanaldi osoan urteko batez besteko baliokidea zenbatuko da okupaturako langile gisa.</p>	